

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRIGINTZA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Behin betiko onespena ematea Erdi Aroko hiriguneko Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren 9. xedapen aldakuntzari (Gasteizko Diputazio kaleko 6.eko higiezinaren kategoria aldaketa)

Hauxe ebatzi zuen udalbatzak 2014ko uztailaren 18an:

Gaia: Behin betiko onespena ematea Erdi Aroko hiriguneko Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren 9. xedapen aldakuntzari (Gasteizko Diputazio kaleko 6.eko higiezinaren kategoria aldaketa).

Erabaki proposamena:

Gasteizko Udaleko Hirigintza Saileko Plangintza eta Hirigintza Kudeaketaren Zerbitzuak 2013ko irailean Erdi Aroko hiriguneko Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren xedapen aldakuntzarako egin duen proiektua ikusi da. Horren bitartez, Diputazio kaleko 6.eko higiezinaren kategoria aldatuko da.

Proposatzen den aldaketak, dokumentazio tekniko eta memoriarekin bat, Diputazio kaleko 6.eko higiezinaren babes maila aldatzea du xede, hartara "Ingurumen izaerako eraikina, oinarritzko babeseko elementuak, historikoa /OBH" kategorian sailkatuta egotetik "Ingurumen izaerako eraikina, oinarritzko babes elementuak, plangintzara egokituta/OBPE" kategorian egotera pasatuz; bi kasuetan ordenantza bera, ORE-OE" da aplikagarri.

Aipatutako higiezin horri ez dio Eusko Jaurlaritzaren 281/2003 Dekretuak eragiten, zeinek Gasteizko Hirigune Historikoa Kultur Ondasun aitortzen du, Monumentu Multzo kategoria ematen dio eta babes erregimena onartzen duen. Hori dela eta, higiezin honentzat proposatzen den sailkapen berriak araudi autonomikoan aurreikusitakoa baino babes maila handiagoa ematen dio higiezinari.

Indarrean dagoen katalogazioaren eta Erdi Aroko hiriguneko BIPBan proposatzen den aldaketa honen arteko alde bakarra hauxe da: higiezinari ematen zaion babes maila berri berreraikitzeak ez duela fatxada mantentzeko beharra ezartzen, higiezin honek ez baitu kultur balio berezirik. Interesa duen elementu bakarrak eraikitako bolumenaren tipologia eta fatxadako baoak dira, eta horiek mantendu egiten dira proposatutako babes mailan.

Proposatutako aldakuntzarekin batera aurkeztu den dokumentazioan jaso egin dira aldaketaren aurrekariak, helburua eta ekimena, haren beharra zein egokieraren justifikazioa, baita eraikuntzaren katalogoari dagokion egungo dokumentazio grafikoa eta proposatutakoarena (2.a), Lur zatiketari buruzko ordenantza (7.a), "Eraikuntza, espazio librea, lerrokadurak eta ses-trak antolatze zehaztapenak (8.a hegoa) eta BIPBaren 9. aldakuntza honek eragiten duen higiezinaren hirigintza fitxa ere.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2014ko otsailaren 21ean hartutako erabakiaren bidez, Erdi Aroko hirigunearen Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren bederatzigarren aldakuntzaren proiektua onetsi eta aldakuntzari hasierako onespena eman zitzaion. Hogei egunez jarri zen jendaurrean, 2014ko martxoaren 12ko ALHAOn (29. zk.) eta 2014ko martxoaren 5eko Diario de Noticias de

Álava egunkarian iragarkiak argitaratuta, haien interesak eragiten zituela uste zuenak egoki jotzen zituen alegazioak aurkez zitzan.

Dosierra jendaurrean egon den epearen barruan alegazio bat aurkeztu da, eta bertan adierazten denez, hasierako onespena jaso duen planeamendu aldaketa ez da interes publikokoa, aitzitik, Diputazio kaleko 6.eko higiezinaren jabeen elkargoaren interes eta onurarako ekimena da, eta argi eta garbi higiezin horren beheko solairuan dagoen merkataritza aretoaren jabetza duen alegazio-egilearen kalterako.

Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuak 2014ko ekainaren 23an egindako txostenean aztertu eta baloratu egiten du aurkeztutako alegazio hori eta atzera botatzea proposatu du.

Tokiko Gobernu Batzarraren 2014ko ekainaren 27ko rabakiaren bidez, Erdi Aroko hirigunearen BIPBaren aldakuntza horren hasierako onespeneren kontra aurkeztutako alegazioa atzera botatzea proposatzen da, aipatutako txosten tekniko-juridikoa aintzat hartuta.

Tokiko Gobernu Batzarraren erabakia jakinarazi zitzaion Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaien Sailari zein Kultura Sailari, egoki diren txostenak eman zitzaion. Lehenek ez diote inolako eragozpenik jarri Erdi Aroko hiriguneko BIPBaren bederatzigarren aldakuntzaren dosierrari, eta hala dago jasota Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiken Etxebizitza Zuzendaritzak 2014ko martxoaren 28an emandako txostenean (Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak ez du epe barruan txostenik aurkeztu); hori guztia Lurrari eta Hirigintzari buruzko Euskal Herriko 2/2006 Legearen 97. artikulua xedatutakoari jarraituz egin da.

Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuak 2014ko ekainaren 30ean txosten juridikoa eman zuen, eta Gasteizko Erdi Aroko hiriguneko Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren Plan Partzialerako proposatu den bederatzigarren aldakuntzaren alde agertzen zen

Gasteizko Hiri Antolakuntzarako Udal Plangintza Orokorrean finkatua dago Erdi Aroko Hirigunearen Birgaitze Integraturako 1. Plan Bereziari dagokion esparruaren fitxa.

Eusko Jaurlaritzaren Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuak arautzen du Euskal Autonomia Erkidegoko ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketan erregimen juridikoa, eta orobat zehazten du birgaitzeko jarduketan kontzeptua.

317/2002 Dekretuaren 10. artikulua arautzen ditu birgaitze plan bereziak, eta plan berezien baitako motetako bat direla adierazten, luraren erregimenaren eta hiri antolakuntzaren inguruan indarrean dagoen araudiaren ildotik, eta delako legean eta hori garatzen duten araudietan nahiz horiek ordeztzen dituzten arauetan xedatutakoari lotuak daudela, baita dekretuan bertan berariaz adierazitakoari ere.

Dekretu horren beraren 12. artikulua, plan bereziak taxutu, izapidetu eta onesteko prozedura arautzen duelarik, hauxe xedatzen du: birgaitze integraturako plan bereziak behin betiko onetsi aurretik Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren eta Etxebizitza eta Gizarte Gaien Sailaren arauzko txostenak beharko dira.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 69. artikuluan eta hurrengoetan xedatzen da plan berezien esparrua eta edukia.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 95., 96. eta 97. artikuluetan arautzen dira plan partzial eta berezien izapidetze eta onespena.

Aipatutako 2/2006 Legearen IV. kapituluaren seigarren atalak planeamenduaren aldakuntza eta berrikuspena arautzen du eta konkretuki 104. artikulua xedatutakoaren arabera, hirigintza planen zehaztapenetan edozein aldakuntza egiteko plan mota bera erabili beharko da, baita zehaztapen horiek onesteko jarraitutako prozedura bera baliatua ere.

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak — Tokiko Gobernu Eraberritzeko 57/2003 Legeak osatua— 127.1.c) artikuluan xedatutakoaren arabera, Tokiko Gobernu Batzarrak du eskumena hiri antolakuntzarako tresnen proiektuak onesteko; behin-behineko edo behin betiko onespena ematea, berriz, Udalbatzari dagokio.

Udalbatzari dagokio antolamendu orokorrari hasierako onespena ematea, baita hirigintzako legediak aurreikusitako planen zein bestelako instrumentuen udal izapidetzeari amaiera ematen dion onspena ere, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 123.1.i artikulua — Tokiko Gobernu Eraberritzeko Neurriei buruzko 57/2003 Legeak osatua— dioenaren arabera.

Udalbatzaren Araudi Organikoak 213.1 eta 218.1 artikuluetan xedatzen duenez, Hirigintzaren alorreko legedian aurreikusitako antolakuntza plan eta instrumentuak egin eta onesteko prozeduran hasierako onspenaren ondoren iradokizunak edo erreklamazioak aurkeztuz gero, Tokiko Gobernu Batzarrak beharrezko diren txostenak eskatuko ditu horien gainean, eta onartu edo baztertzeko proposamena egingo. Ondoren, osoko bilkurara igorriko du proposamen hori, honek onartu edo baztertzea erabaki dezan, eta hirigintza planeamenduari behin betiko onspena ematea erabaki dezan.

Proposatzen den antolamenduari bat etorritik —dosierreko hirigintza agirietan justifikaturik dago horren komenigarritasuna eta egokitasuna— eta aipatu diren araudiak aintzat harturik, Hirigintza Batzorde honek, Toki Jaurbidearen Oinarriei buruzko 7/1985 Legeak —abenduaren 16ko Tokiko Gobernu Eraberritzeko Neurriei buruzko 57/2003 Legeak osatua— 122.4.a) artikuluan aitortzen dizkion eskumenak baliaturik, eta Tokiko Gobernu Batzarrak hala proposaturik, erabaki proposamen hau egiten dio Udalbatzari:

ERABAKIA

1. Atzera botatzea Gasteizko Erdi Aroko hiriguneko Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren bederatzigarren xedapen aldakuntzaren aurka 2014ko apirilaren 4an aurkeztutako alegazioa, Hirigintza Saileko Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuak 2014ko ekainaren 23an aurkeztutako txostena (dosierrean jaso) eta Tokiko Gobernu Batzarrak 2014ko ekainaren 27ko bilkuran egindako proposamena kontuan hartuta.

2. Behin betiko onestea Gasteizko Birgaitze Integraturako Plan Bereziaren bederatzigarren xedapen aldakuntza, zein Gasteizko udaleko Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuak taxutu baitu. Aldaketa Gasteizko Diputazio kaleko seigarreneko higieziaren kategoria aldatzean datza, “Ingurumen izaerako eraikina, oinarritzko babeseko elementuak, historikoa /OBH” kategorian sailkatuta egotetik “Ingurumen izaerako eraikina, oinarritzko babes elementuak, plangintzara egokituta/OBPE” kategorian egotera pasatuz; bi kasuetan ordenantza bera, ORE-OE” da aplikagarri. Hori guztia, dosierrean jasotako agiriarekin bat, non indarrean dagoen plangintza eta proposatutakoa, eta aldaketari dagokion dokumentazio grafikoak baitaude.

3. Erabaki hau argitaratzea, ALHAOn eta lurraldean zabalkunderik handiena duen egunkarietako batean iragarkiak jarriz, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 89. artikulua xedatutakoarekin bat etorritik.

4. Erabaki honen kontra, amaiera ematen baitio administrazio-bideari, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, jakinarazten edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

HIRIGINTZA ARAUDIA

“Eraikinaren katalogoa” eranskinean kategoriei emandako idazkera berria jasotzen da:

Ingurumen izaerako eraikinak —Oinarritzko babes elementuak, Historikoak / OBH

BIPBaren berrikuspen irizpideak aplikatzeak eragindakoak:

- Diputazio kalea, 6, 10, 12, 14, 16
 - Probintzia plaza, 7, 8, 9
 - Jesusen Zerbitzarien kalea, 26, 30, 34, 36, 38
 - Errementari kalea, 5, 7, 9
 - Errementari kalea, 4, 8, 10, 12, 18, 20, 22A, 34, 38, 42, 46, 48, 50, 58, 64, 82
 - Zapatari kalea, 1, 5, 9, 11, 15, 17, 29, 31, 39, 43, 45, 53, 55
 - Zapatari kalea, 2, 4, 20, 24, 26, 28, 30, 32, 34, 38, 92
 - Anorbin kantoia, 1
 - Hedegile kalea, 1, 3, 5, 11, 17, 19, 25, 41, 43, 45, 47, 49, 53, 55, 95, 97, 103, 105, 107, 109, 111, 113, 115, 117, 121, 125, z/g, 145.
 - Hedegile kalea, 2, 4, 6, 16, 18, 20, 22, 24, 28, 30, 32, 36, 38, 44, 46, 50, 52, 58, 62, 64, 90, 92, 118
 - Frai Zacarias Martinez kalea, z/g, Eskoriatza-Eskibel jauregia
 - Santa Maria plaza, 2 eta z/g
 - Aitzogile kalea, 9, 11, 29, 31, 33, 37, 41, 43, 49, 51, 53, 55, 57, 59, 63, 65, 69, 71, 73, 75, 77, 79, 83, 85
 - Aitzogile kalea, 8, 14, 20, 50, 54, 56, 60, 64, 66, 70, 74, 80, 82, 84, 92, 98
 - Txikita kalea, 2, 8, 14, 16
 - Santa Maria kantoia, 7
 - San Markos kantoia, 1
 - Santo Domingo kalea, 3, 27, 29
 - Santo Domingo kalea, 6, 8, 16, 28, 34, 36, 38
 - Pintore kalea, 3
 - Pintore kalea, 4, 6, 8, 10, 14, 16, 26, 44, 46, 48, 52, 56, 58, 80
 - San Frantzisko kalea, 1
 - Barnekale Berria 1, 5, 7, 19, 29, 39
 - Barnekale Berria 4, 6, 12, 14, 32, 44
 - Kanpokale Berria, 19, 27
 - San Frantzisko Xabierkoaren kantoia, 6 eta 6A
- Ingurumen izaerako eraikinak –Oinarrizko babes elementuak – egokituak / OBPE
- Planeamendura egokitzeko eraberritze-jarduerek eragindakoak:
- Diputazio kalea, 6, 18
 - Jesusen Zerbitzarien kalea, 40
 - Errementari kalea, 16, 28, 64, 76, 78, 82 (ezker-eskuin), 86, 90, 94, 96, 98
 - Zapatari kalea, 21, 59, 63, 65, 67, 73, 75, 77, 79, 81, 89, 91
 - Zapatari kalea, 14, 40, 42, 44, 46, 48, 50, 52, 60, 62, 66, 68, 70, 72, 74, 80, 96A, 108
 - Hedegile kalea, 7, 9, 13, 27, 57, 59, 61, 63, 65, 67, 69, 71, 73, 75, 87, 89, 143

- Hedegile kalea, 8, 10, 34, 54, 56, 66, 70, 74, 78, 94, 96, 120, 124
- Aiztogile kalea 10, 16, 18, 44, 54B, 90
- Txikita kalea, 1, 3, 5, 18
- Pintore kalea, 21, 23
- Pintore kalea, 22, 30A, 34, 40, 54, 60, 68A, 68B, 68C
- Santo Domingo kalea, 1, 7
- Santo Domingo kalea, 14
- Barnekale berria 5A, 11, 13, 17, 31, 33, 33A eta 37
- Barnekale Berria, 20
- San Bizente Paulekoaren kalea, 1, 3, 5, 8
- Kanpokale Berria 1, 3, 7, 9, 17A eta 19A
- Barrenkalea, 5, 9
- Bueno Monreal kalea, 1

Vitoria-Gasteizen, 2014ko uztailaren 21ean

Alkate lehendakaria

JAVIER MAROTO ARANZÁBAL